



# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.org

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak abian jarri zirenetik BAT aldizkariak zenbaki monografikoa eskaintzen dio urtero bertan sarituak izan diren lanak argitara emateko. Aurten, ordea, zenbaki bikoitza prestatu dugu, lan irabazleekin batera lehiakide izan diren gainerakoen artean aukeratutako beste zortzi artikuluekin. Guztira, beraz, hamaika artikulua bildu ditu BAT 92-93 zenbakiak.

HAUSNARTUren edizio honetara aurkeztu diren lanen jatorrizko ezagutza-diziplinak eta ikerketarako erabilitako metodologiak askotarikoak izan dira; luzeraren aldetik laburrak eta luzeagoak, eta baita zorrotasun-maila desberdinetakoak ere. Soziolinguistika Klusterrarentzat eta lehiaketaren sustatzaile den BAT argitalpenarentzat oso pozgarria izan da aurten ere, euskal soziolinguistika-esparruan ikertze-lanetan gero eta lagun gehiago biltzen dela ikustea.

Zenbaki monografikoa 2014 urteko edizioan irabazle izan den **Miren Artetxeren** artikuluaekin zabaltzen da. Lan horretan, Baionako Bernat Etxepare lizeoko bertso-eskolan bertso-gintzan trebatzen ari diren gazteek hizkuntzari buruz dituzten diskurtsoak aztertu ditu egileak. Helburua izan da gazte horien identitatearen eraikuntzan bertso-eskolak *jarduera-komunitate* modura duen era-

gina aztertzea. Ikuspegi horretatik oso aproposa suertatu da gazteen hizkuntza-portaerak ulertzeko, batez ere, kontuan izanda zenbaterainoko kezka-iturri den gaur egun euskararen ezagutzatik erabilerara dagoen tartea.

**Naiara Berasategik**, lehiaketaren bigarren saria jaso du Bilboko eskoletako hizkuntza-eta kultur-aniztasuna aztertuz egindako lanarengatik. Zehazki, identifikatu nahi izan ditu testuinguru horretan euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak. Hau da, egungo gizarte gero eta eleaniztuna eta kultur anitza kontuan hartuta ikasleen praktika linguistikoak (euskara, espainiera eta beste hizkuntza) eta kulturalak aztertu ditu.

Lehiaketaren hirugarren saria jaso du **Josu Amezaga** irakasleak "Hizkuntza gutxi-tuak komunikazio espazio nazionalen aldaketan aurrean" izenburupeko lanarekin. Ikerketa-lan honetan aztertzen du komunikazio-espazio nazionaletan gertatzen ari diren aldaketek euskara bezalako hizkuntza gutxi-tuengan zer-nolako ondorioak dakarten. Aldaketa horiek oso sakonak izanik esparru sozioekonomikoari, politikoari eta teknologikoari eragiten diete. Testuinguru horretan azpimarragarria da, bereziki, komunikazioari dagokionean, hizkuntzaren dinamika jada

ez dela espazio fisikoan gertatzen soilik, baizik eta oso kontuan hartu beharrekoa dela espazio ez fisikoetan ere gertatzen dena. Horregatik, lurraldean sakabanatuta baina komunikabideen bitartez bateratua dagoen komunitatearen ideia ere kontuan hartzea proposatzen du, bai ikerketa-lerro bezala, ekinztetarako lan-ildo modura, eta baita hizkuntza-plangintza irudikatzeko ere.

Elhuyar aholkularitzako **Goizargi Orue-sagastik**, **Joana Arakistainek** eta **Aizpea Otaegik** idatzi dute “Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena” artikulua. Izenburuak dioen bezala, lanaren helburua izan da hizkuntzaren eremuan genero-ikuspegia txertatzeko aintzat hartu behar diren gaiak identifikatzea: errealitate soziolinguistikoarekin zer ikusia duten datuak ikustea eta horietan sexuaren araberako desberdintasunak dauden hausnartzea. Esate baterako, euskararen eza-gutzan, erabileran eta euskararen aldeko motibazioan sexu-desberdintasunak ote dauden kontuan hartzea. Hala izanez gero, desberdintasun horiek gainditzeko neurriak hartzen hastea proposatzen dute egileek.

“Gazteak, hizkuntza eta hegemonia. Lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Soraluzen” artikulua da **Maite Kintanillak** eginiko lana azaltzen duena. Bertan, Soraluzeko 15-16 urte bitarteko gaztetxoek euskararekin duten harremana aztertu nahi izan du, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko eragiten duten faktoreak identifikatzeko. Ikerketarako, metodologia kualitatiboa erabili du, adin horretako gaztez osatutako bi eztabaida-talde eta 6 elkarrizketa sakon burutuz. Ikerketaren hipotesiak hiru ardatzetan kokatu ditu iker-tzaileak; 1) gaztelania erabiltzeak taldean zein jendartean boteretzea ahalbidetzen du,

2) nerabeak gainerakoen ispilu dira, eta 3) gaztetxoek euskara haur- eta eskola-hizkuntza modura hartzen dute eta horregatik uko egiten diote egunero erabiltzeari.

**Ainhoa Lasak**, **Larraitz Madinabeitiak** eta **Gemma Sanginés**ek sinatu dute “Portaera asertiboaren hautematea” artikulua. Lan horretan hizkuntza-ohiturak psikologiaren ikuspegitik aztertzen dira, bereziki, asertibitateak ohitura horietan duen garrantzia. Hizkuntza gutxituetako hiztunek hizkuntza-portaera desberdinak nola hautematen dituzten aztertu nahi izan du. Horretarako, ikerketarako lagina 18 urtetik gorako herritarrekin osatu du eta horiei galdetegia betetzeko eskatu, gizartean ezagunak diren portaera pasiboak, oldarkorra eta asertiboak nola hautematen dituzten eza-gutzeko. Lortutako emaitzak modu kuantitatiboan aztertu ditu, ondorio modura bi hipotesi planteatzeko; lehena, hizkuntza-portaera asertiboak orokorrean onarpen handiagoa du hizkuntza-portaera pasiboak edo oldarkorrak baino, eta bigarrena, euskaraz hitz egiteko gai direnek positiboago baloratzen dute hizkuntza-portaera asertiboa, euskaraz hitz egiten ez dakitenei baino.

Azpeitiko gazteek bertako euskararekiko duten lotura afektiboa aztertu du **Naroa Odriozolak**, ondoren aurkezten den artikuluan. “Azpeitiko batxilergoko gazteen herriko hizkuntzekiko lotura afektiboa eta hizkuntza horien erabilera: azpeitiera, euskara batua, gaztelania” izenburupean, egileak herri oso euskaldun horretan euskararen ezagutza eta erabileraren arteko tartearen inguruan datu gehiago eskaintzeko asmoarekin burutu du ikerketa. Horretarako, 16-18 urte bitarteko 40 ikaslek bete dute berriaz prestatutako galdetegia eta egileak burutu du analisi kualitatiboa. Ondorioen artean nabarmentzekoa

da parte-hartzaile gehienek erakutsi duten azpeitierarekiko atxikimendu handia, euskara batuarekin edota gaztelaniarekin alderatuta. Bi horien garrantzia aitortzen duten arren, gazte gehienek herri hizkerari formalki ere, ematen zaiona baino garrantzi handiagoa eman behar litzaiokeela aldarrikatzen dute.

Ondorengo ikerlana Elgoibarko udalerrian Izarra Kultur Elkarteko *Atxutxiamai* Sailaren jarduera du erdigunea. Elkarte horrek udalerriko haur, nerabe, gazte eta horien gurasoen euskararen erabileran eragitea du helburu, eta ikerketa honek helburu hori betetzen den edo ez aztertzen du. **Maialen Arnedok** buruturiko lanean, talde horretan parte hartzen duten hezitzaileen iritzia biltzen dira, horretarako prestaturiko galdetegi eta elkarrizketa bidez eginiko ikerketaren bitartez. Ondorioen artean azpimarragarria da baieztatzen dela – espero zitekeen bezala – aisialdiko jarduerak haurren euskararen erabileran eragin handia dutela, eta horregatik, hezitzaile ez-euskaldunak euskalduntzeak garrantzi berezia duela.

**Beñat Urkiza** filologoak Mutrikuko azentuaren bariazioa aztertu du aldagai soziolinguistikoaren arabera. “Aldagai soziolinguistikoaren bidez aztertuta: Mutrikuko Azentuaren Bariazioa” artikuluan erabilitako hipotesiak hiru motatakoak dira: azentu sistemarekin lotutakoak, aldagai sozialekin lotutakoak eta aldagai geografikoekin lotutakoak. Ikerketaren helburua aldakortasunaren inguruan dauden aurreiritziei buruz argibideak eskaintzea izan da. Datuak inkesta bitartez bildu dira eta lagina aldagai soziolinguistikoetan oinarrituta da, besteak beste: adina (lau adin tarte), bizilekua (portua edo itsas alde eta baserria) eta generoa.

**Xabier Azkuek** burutu du “EUSKURA - euskara eta kultura” ikerketa-lana. Euskarazko

kulturgintzak euskara biziberritzeko duen garrantzia abiapuntutzat hartuta, Zumaiako kultura-talde eta erakundeen sarea aztertu du esparruz esparru, eta indarguneak sendotzeko eta ahuleziak zuzentzeko hainbat estrategia proposatu ditu egileak, besteak beste, auzolana bultzatzea, hiztun-komunitatea trinkotzea, lidergoa baliatzea, identitatea lantzea, eta ekosistema zaintzea.

BAT 92-93 zenbaki monografiko honi amaiera emateko **Iñigo Igartzabalek** eginiko ikerketaren berri emanez, “Kode-alternantzia eta hizkuntza-ohiturak Gabiriako bi belaualditan” artikulua eman dugu argitara. Izenburuak dioenez lan honetan oso euskalduna de udalerriri txiki horretan bi belaualdi ezberdinetan gertatzen diren kode-alternantziak aztertu ditu egileak, bina talderen hitz-jarduerak grabatu eta aztertuz; lehena 15/18 urte bitarteko gazteek osatu dute eta bigarrena 32/37 bitarteko helduek. Azterketak erakusten du kode-alternantzia bi adin-taldeetako hiztunek egiten dutela, eta ez dagoela bien artean diferentzia nabarmenik, heldutasunari lotu dakiokkeen ezaugarriak alde batera utzita behintzat (lan-munduan egotea edo oraindik sartu ez izana, esate baterako). Hala ere, emaitzen artean nabarmentzekoa da parte-hartzaile guztiek aitortzen dutela gaztelaniaren eragina oso indartsua dela, nahiz eta arnagunea den herri horretan gehiengo euskaraz bizi den.

Horrela itxi dugu HAUSNARTU sariaren zenbaki monografiko bikoitz hau. Urtez urte aberasten ari den lehiaketa honen emaitza eskaintzeko moduan izan gara, hortaz, eta orain zuri dagokizu txanda, irakurle. Ziur gaude zure interesekoa izango den gai bat baino gehiago topatuko duzula zenbaki sendo honetan. •